

BERGARAKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA

2000. urtean Bergaran sortutako taldea. 4 erraldoirekin hasi zuten beren jarduna, eta gaur egun 6 erraldoi handi, 8 erraldoi txiki, 2 erraldoi ertain, 2 ipotx eta 6 buruhandi eta 4 kiliki dituzte.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** Nagusi eta ume artean 100 lagun.
- **BAZKIDEEN ADINA:** 6 urtetik 77ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Ez dute egun zehatzik.
 - TOKIA: Zabalotegi kalea 3 (Gaztelekua).
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Herriko zein kanpoko jaietan erraldoi eta buruhandien kalejiran irtetea.
- **KONTAKTUA:** bergarakoerraldoiak@gmail.com



BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA

1986an Bergarako Musika Eskolaren magalean sortu zen, Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren zuzendaritzapean. Beranduago, herriko orkestra bezala birsortu zen, Musika Eskolari ikasleen orkestra propioa izatea ahalbidetzeko. Horrela, Euskal Herrian, musikari ez-profesionalak osatutako herri-orkestra bakarrenetakoa bihurtu zen.

Klasikotik gaur egungo musikara, eta musika serioetatik herrikoietara, denetik aurki daiteke bere errepertorioan. Bergarako kultura musikala anitzagoa izatea du helburu. Eta era berean, harro ordezkatu du herria hainbat eskenatoki urrunetan ere, Madrilen, Andaluzian, edota Euskal hiriburu guztietan kasu.

Sorreratik bere zuzendari izan den Alfredo Glz. Chirlaque 2019ko ekainean ordezkatu du Enrike Txurrukak, orkestraren bidean etapa berri bat zabalduz.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 60
- **BAZKIDEEN ADINA:** 17 urtetik 60ra bitartekoak
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Ostirala.
 - ORDUA: 20:00-22:00.
 - TOKIA: Muiska Eskola.

- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Urtean 4 kontzertu finko herrian: Inauteriak, San Pedro, Santa Zezilia eta Gabonak.
 - Sortzen diren beste edozein aukera, herrian edo kanpoan ere.
- **KONTAKTUA:** bergarakoorkesta@gmail.com



BERGARAKO KORU PARROKIALA

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 50 inguru.
- **BAZKIDEEN ADINA:** 70 urte.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Ostirala
 - ORDUA: 17:30
 - TOKIA: Santa Marina parrokiako Sakristau Etxea
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Herriko jaietako meza nagusiak, urtean ± 8.
 - Irteera batzuk.
- **KONTAKTUA:** kultura@bergara.eus



BERGARAKO MUSIKA BANDA

1832ko otsailaren 19ko Udal agiri baten azaltzen da Bergarako Musika Bandaren lehen albisteak. Ordutik, herriari musika eskaintzen eta Bergararen izena harro zabalitzen aritu da, sasoi gogorrenetan ere etenik izan gabe.

Aipatzekoa, bere historiaren 110 urtetan, Gonzalez-tarren zuzendaritzapean izan dela Banda. Ignacio Glz. Escala 1909tik 1952ra, Miguel Glz. Bastida 1952tik 1987ra, eta Alfredo Glz. Chirlaque 1987tik 2019ra. Epe luze horretan, Euskal Herriko banda ez profesional onenen artea egon da beti Bergarakoa, hainbat sari eta aipamen lortuz. Nabarmenezkoak baita Gonzaleztarrek herrirako sortutako musikak, martxak, estampak, etab.

Gaur egun, Bergarako Musika Eskolan hezitako musikariz elikatzen da Banda, eta orain arte bezala, ohitura eta berrikuntza uztartuz, etorkizunari aurre egiteko ilusioz prestatzen ari dira, 2019ko ekainetik zuzendari berria den Enrike Txurruka-rekin batera.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 70
- **BAZKIDEEN ADINA:** 16 urtetik 76ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Asteartea eta osteguna
 - TOKIA: Musika Eskola
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Hilean behin eta jai-egunetan musika-kontzertuak eskaini.
 - Musika-konposizio ezberdinak interpretatu.
- **KONTAKTUA:** kultura@bergara.eus



BERGARAKO TAILA ELKARTEA

2004an eratu zen Bergarako Taila Elkartea, egur mota ezberdinak ezagutu eta lantzeko helburuarekin. Asteko edozein egunetan zabalitzen dituzte beren lokaleko ateak, norberaren premien arabera. Hasi berrientzako ikastaroak ere lantzen dituzte.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 25
- **BAZKIDEEN ADINA:** 16 urtetik 88ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Egutero
 - ORDUA: Goizez 10:00-13:00; arratsalde 16:00-20:00
 - TOKIA: Lokalean, Zabalotegi 11 - behea
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Marrazkiak egurrean.
 - Taila egurrean (figurak, koadroak ...).
 - Egurren tratamenduak (pijiaren aurkakoa, tinteak, pinturak).
 - Ikastaroak antolatu: hastapen eta sakontze mailak.
 - Urteko lanen erakusketa, Aroztegi aretoan.
- **KONTAKTUA:** tailaeskola@gmail.com



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolak guztira 580 ikasle ditu, 3 urtetatik hasi eta... helduak baita ere. Guztira 24 irakasle ditu eta 28 Istrumentu herrikoiak, sinfonikoak, polifonikoak, tendentzia berriak eta Euskal dantzak ikasteko eskaintza.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 500
- **BAZKIDEEN ADINA:** 3 urtetik aurrera.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Astelehenetik ostiralera
 - ORDUA: Arratsalde z/g
 - TOKIA: Espoioa z/g
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Musika eta mugimendu tailerrak (5 urtetik aurrera).
 - Hizkuntza Musikala (helduentzat ere)
 - Ahotsa, abesbatzak eta kantu bakarlaria.
 - Instrumentu musikalak: Tronboia; Tuba; Bonbardinoia; Tronpa; Tronpeta; Klarineta; Oboea; Flauta; Fagota; Saxofoia; Biolina; Biola; Biolonbela; Gitarra; Pianoa; Organoa; Akordeoia; Perkusioa; Kantua.
 - Herrikoia: Alboka; Txistua; Trikitixa, Panderoa; Txalaparta.
 - Instrumentu modernoak: Gitarra eta Baxu elektrikoak; Bateria; Armonika; Konboak.
 - Biolina 3 urtetik aurrera.
 - Musikoterapia.
 - Euskal dantzak.
 - Taldeak: gazte banda, orkestra sinfonikoa, akordeoi taldea, big band, soka taldea, trikiti taldea, konboak, txistulari taldea,...
 - Kontzertuak, elkartrukeak, antzerki musikak, Dantza ikuskizunak...
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 943 76 57 80 (Musika Eskola) edo idazkaritza@bme.e.telefonica.net http://bergarakomusikaeskola.com/



BERGARAKO TXISTULARI TALDEA

- **BAZKIDEEN ADINA:** 35
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Asteazkena
 - ORDUA: 20:00ak
 - TOKIA: Musika Eskola
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Txistuaren irakaskuntza eta hobekuntza ardatz hartuta zabalpena ematea.
 - Zuzeneko kontzertuak eta kalejirak.
- **KONTAKTUA:** bergarakobtxistulariak@gmail.com



BERGARAKO ORFEOIA

1923. urtean sortutako elkarte, Euskal Herriko musika eta abesteko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

- **BAZKIDE-KOPURUA:** 182
- **BAZKIDEEN ADINA:** 20 urtetik 77 urtera bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Astelehena eta asteartea.
 - ORDUA: 20:30-22:30
 - TOKIA: Santa Marinako Sakristau Etxean.
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Gabonetako kontzertua, udako kontzertua...
 - Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
 - Ikuskizun musikalak: Seussen Mundua, Peter Pan...
- **KONTAKTUA:**
 - bergarakoorfeioa@gmail.com
 - https://www.facebook.com/bergarako.orfeioa



JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Jardun euskara elkarte 1990ean sortu zen herriko hainbat euskaltzaleren bultzadaz.

Elkartaren helburu nagusiak Bergaran euskal giroa berpiztea, ekintza euskaldunak bultzatzea, euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea dira. Horretarako edozein motatako ekintzak burutzen ditu, kultur ekintzak, aisialdi ekintzak, sentsibilizazio kanpainak, etab.

Gaur egun elkarte 600 bazkide inguruk, zuzendaritza batzordeak eta langile taldeak osatzen dute.

Garai eta behar berrietara egokituz, ia 30 urteko ibilbidea egin du dagoeneko elkarteak. Baina oraindik ere, helburuen betetze mailari dagokionean lan asko dago egiteko eta horretan jarraitzen du Jardunek.



- **KONTAKTUA:**
 - Telefona: 943763661 // 605712469
 - Posta Elektronikoa: jardun@topagunea.com
 - Bulegoa: JARDUN EUSKARA ELKARTEA
 - Errotalde jauregia (Kultur Etxea) z/g. - 20570 Bergara Gipuzkoa
 - Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 eta 15:00-19:00 (ostiraletan 18:00 arte)
 - twitter: @JardunEus

BERGARAKO ORFEOI GAZTEA

Orfeoi gaztearen helburua da kantu-zaletasuna suspertzea eta Bergarako Musika Eskolako haur koruen eta Bergarako Orfeoiaren artean zubi-lana egitea. Bergarako, Euskal Herriko eta munduko musika abestea eta, bide batez, zaletasun korala zabaltea da.

- **KANTARI-KOPURUA:** 25-28 pertsona
- **BAZKIDEEN ADINA:** 13-18 urte bitarteko gazteak
- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Asteartea
 - ORDUA: 19:00-20:30
 - TOKIA: Santa Marinako Sakristau Etxean.
- **EGITEN DUTEN LANA:**
 - Gabonetako kontzertua.
 - Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
 - Ikuskizun musikalak: Seussen Mundua, Peter Pan...
- **KONTAKTUA:** bergarakoorfeioa@gmail.com



SAN JOXEPE ABESBATZA

1975. urtean sortu zen, Bergarako jubilatuen elkartearen baitan. Gaur egun 45 lagunek osatzen dute taldea, 65 urtetik 90 urtera bitarteko gizon eta emakumeek.

Hamarkada batez Jose Patxi Azkarate antzuolarra aritu da abesbatzako zuzendari-lanetan, eta gaur egun Ramon Amasorrain da koruko zuzendaria.

- **TALDEA BILTZEKO:**
 - EGUNA: Osteguna.
 - ORDUA: 17:00 – 18:30
 - TOKIA: San Joxepeko egoitzan.
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:**
 - 943 764 690 edo
 - sanjoxepe@telefonica.net



Bergarako Udala

Kultura Zerbitzua
943 77 91 59
kultura@bergara.eus



Euzko Jaurlaritzako Gobernuko Kultura Saila

Agendako ekintza batean zeinu hizkuntza interpretazio zerbitzua eduki nahi izanez gero www.bergara.eus edo Udaletxean eskatu dezakezu.

Si desea contar con servicio de traducción de lenguaje de signos puede solicitarlo en www.bergara.eus o en el Ayuntamiento.

HILEKO GALDERA

Nola du izena Agur Etxebeste pelikularen zuzendari bergararrak?
¿Cómo se llama el director bergarés de la película Agur Etxebeste?

Eman erantzuna Udaletxeko kutxan **irailaren 15a** baino lehen. Erantzun zuzenen artean Seminarixoko edozein emanalditarako 2 sarrera zozketatuko ditugu.

Aurreko hileko galderaren irabazlea: **ZIHORTZA MARZAN USANDIZAGA**

Erantzuna:

Izen Abizenak:

Tel.:

KULTURA KALERA

27	 ☉ 17:00-19:30 Haurrentzako jolasak. Antolatzailea: Jardun.  ☉ 20:30 Ate irekiak: Bergarako Orkestra Sinfonikoaren entsaioa.  San Martin plaza  Musika Eskola
28	 ☉ 12:00 Bergarako herria hobeto ezagutzeko bisita gidatua (euskaraz). Elkargunea: San Martin plaza. Izena emateko: laboratorio@bergara.eus edo 943 769 003.  ☉ 19:05 Kontzertua: Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gaztea, Aritzeta abesbatza eta San Joxepe abesbatza.  San Martin plaza  San Martin plaza
29	 ☉ 12:00 Alai taldearen kalejira.  ☉ 12:30-14:00 Tailerrak eta informazio puntuak.  San Martin plaza (euriarekin arkupean) - Taila elkarte - Bergarako buztintzale zeramika eskola - Arizondo argazki taldea - BEART elkarte - Arakne Bergarako parpailarien elkarte - BET erraldi konpartsa - Jardun euskara elkarte - Musika Eskola

- 

Musika, Antzerkia eta Ikusizunak
Música, Teatro y Espectáculos
- 

750 urte eta aurrera.
Hiribilduaren aurretik
- 

Haurrentzako Ekintzak
Actividades Infantiles
- 

Kirola
Deporte
- 

Hitzaldiak eta Ikastaroak
Charlas y Cursos
- 

Ospakizunak eta Azokak
Celebraciones y Mercados
- 

Tokia / Lugar

IRAILEKO AGENDA

A30 Ir2	 ☉ Kofradixak jaiak. Ikusi jai egitaraua.  Osintxu auzoa	14tik 16ra	 ☉ San Martin jaiak. Ikusi jai egitaraua.	27 28 29	 ☉ 08:00 Kultura kalera.
A31	 ☉ San Matei jaiak.  ☉ San Lorentzo jaiak.  Ubera auzoa  San Lorenzo auzoa	14	 ☉ San Martin feria.  ☉ 22:00 Biz Hitza, Aukeran dantza taldea.  Oxirondo plaza  Udal pilotalekua	27	 ☉ 23:00 Jardun bertso-antzerkia.  Bulen
05	 ☉ 18:00 Potx magoa. Antolatzailea: Jardun  Oxirondo plaza	15	 ☉ Santutxuko erromeria.  ☉ San Martin jaiak: ☉ 18:30 BTBren kalejira-Erraldi konpartsa.  Elosu auzoa	29	 ☉ San Migel jaiak.  Angiozar auzoa
06	 ☉ 18:00 Bergara Hiria Emakumezkoen pilota txapelketa, final laurdenak.  Udal pilotalekua	16	 ☉ San Martin jaiak: ☉ 11:00 Bergarako Txistulari Bandaren kalejira.  ☉ 12:30 Bergarako Musika Bandaren kontzertua.  San Martin plazan		ZINEA SEMINARIXOAN Astlehenean 4€ eta gainontzeko egunetan 5€ AGUR ETXEBESTE Irailak 25 ☉ 20:30 Aurre estreinaldia eta Asier Altuna zuzendariarekin solasaldia. Irailak 27 ☉ 22:00 / Irailak 28 ☉ 22:00 Irailak 29 ☉ 17:30 eta ☉ 19:30 / Irailak 30 ☉ 20:30 ERAKUSKETAK 2019/08/02 “Arantza Baskaran”  Aroztegi aretoa 2019/09/08 “Javier Sagarazu”  Aroztegi aretoa ☉ Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 Igande eta jai egunetan: 12:00-14:00 2019/09/20 “San Martinetako pintura 2019/10/03 erakusketa”  Pleno aretoa ☉ Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 Igande eta jai egunetan: 12:00-14:00 2019/06/01 “Biribilak mendietan”  Laboratorium museoa ☉ Laboratorio ordutegian www.laboratorium.eus
07	 ☉ 11:00 Bergara Hiria Emakumezkoen futbol txapelketa.  Ipintzako futbol zelaia	17	 ☉ 18:00 Bergara Hiria Emakumezkoen pilota txapelketa, final erdiak.  Udal pilotalekua		
08	 ☉ San Juan feria.  ☉ 19:00 Musika Ensemble taldearen Antonio Gaztañetaren bidaia kontzertua.  San Juan auzoa  Mariaren Lagundia	21	 ☉ 11:00 Hitzaldia: Bergarako kortak. Hizlaria: Andoni Larrañaga (eusk)  ☉ 19:00 Cristina del Barrio mezzosopranoaren eta Puerto González Chaves pianistaren Gitanas kontzertua. Sarrera libre.  Mariaren Lagundia		
12 13	 ☉ 9:30-13:00 eta 16:30-20:00 Aukeren azoka. Antolatzailea: Bedelkar.  Komertzio aurreetan	22	 ☉ Bizikleta martxa, Palmerakuak taldea.  ☉ Kirola kalera eguna.  Erdigunea  ☉ 09:00 Xake txapelketa Bergara Hiria nazioartekoa.  Agorrosin		
12	 ☉ 19:00 Hitzaldia: Bergarako kortak. Hizlaria: Andoni Larrañaga (eusk)  Irizar etxea, Euskaldun berri aretoa				
13	 ☉ 16:00 Bergara Hiria Emakumezkoen saskibaloiko txapelketa.  Labegarieta kiroldegia  ☉ 18:30 Bergara Hiria Emakumezkoen pilota txapelketaren partidua.  Udal pilotalekua  ☉ 19:30 Gaztetxoaren Euskal Herriko Dantza txapelketa. Antolatzailea: Musika Eskola.  Seminarihoa	24	 ☉ 18:00 Bergara Hiria Emakumezkoen txapelketa, final erdiak.  Udal pilotalekua	25	 ☉ 18:30 Hitzaldia: Bergarako kortak. Hizlaria: Andoni Larrañaga (eusk)  Arbiaska aretoa (Angiozar auzoa)

ALAI TALDEA

GIZONEZKO AHOTS GRABEEN ABESBATZA

1971. urtean sortutako gizeonezkoen ahots grabeen abesbatza da. Bergarako ohiturak eta kultura bultzatu eta kale-giroa kantuz alaitzeko helburuarekin sortu zen. Batez ere euskal abestiak lantzen dituzte. 2009. urtean elkarte bezala eratu ziren.

- BAZKIDE-KOPURUA: 16
- TALDEA BILTZEKO:
 - EGUNA: Asteazkena
 - ORDUA: 20:00-21:00
 - TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpirualde)
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Entseguak.
 - Bergarako auzoetako jaietan kontzertuak.
 - Egun berezietan hirigunea girotu (Santa Ageda bezpera, Eguberriak ...).
 - Irteerak beste herri batzuetara.
- KONTAKTUA: kultura@bergara.eus



ARIZONDO ARGAZKI TALDEA

2012. urtean argazkilaritza bultzatzeko helburuarekin osatutako elkarte. Jatorria Pol-Pol argazki taldean du (1994. urtean sortua).

- BAZKIDE-KOPURUA: 30
- BAZKIDEEN ADINA: 25 urtetik 67ra bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO:
 - EGUNA: Astelehena
 - ORDUA: 19:30-21:00
 - TOKIA: Zabalotegi 5 (lokala)
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Argazki teknika erakutsi.
 - Urteko ekintzak antolatu.
 - Lokalaren mantenua landu.
 - Ikastaroak prestatu. Oinarritzko argazkilaritza-ikastaroa, Photoshop ikastaroa eta mugikorrarekin oinarritzko argazkilaritza-ikastaroa.
 - "Bergara Hiria" argazki-lehiaketa eta "Kirol Argazki Lehiaketa" antolatu eta ondoren erakusketak egin.
- KONTAKTUA: arizondoe@gmail.com



ARAKNE

BERGARAKO PARPAILARIEN ELKARTEA

2013. urtean sorturiko elkarte da, enkaje edo parpaila arloan ematen diren teknika ezberdinak ikasi eta teknika hauekin loturiko ezaguera teorikoak eskuratzeko asmoz.

- BAZKIDE-KOPURUA: 5
- TALDEA BILTZEKO:
 - EGUNA: Osteguna
 - ORDUA: 15:00-17:00
 - TOKIA: Errotalde jauregia
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Taldeko lana egin.
 - Enkaje edo parpaila inguruko esperientziak eta ezaguerak trukatu eta giza-harremanak sakondu.
 - Elkartearen kideen ezaguera teknikoak eguneratu (liburu eta aldizkari berrien aurkezpena).
 - Erramu Zapatuko Ferian lanen erakustaldia egin.
 - Nazio eta nazioarteko erakustaldi eta batzarretan parte hartu.
- KONTAKTUA: kultura@bergara.eus



BEART ELKARTEA

PINTURA, ESKULTURA... ARTE PLASTIKOAK

Arte plastikoak babestu, promozionatu eta hedatzeko helburuarekin 1995. urtean sortutako elkarte. Bergarako arte-eskola berriro marxan jartzea ere lortu zuen, eta gaur egun Bolua kalean dute egoitza. Hainbat ikastaro ematen dituzte bertan, eta lehiaketak ere antolatzen dituzte herrian Bergarako Udalarekin lankidetzan. Horretaz gain, Bergarako Aroztegi aretoa ere jarri zuten abian Udalarekin batera, eta baita Bergara Hirigune Historikoa Koloretan aire libreko museo-proiektua ere.

- BAZKIDE-KOPURUA: 68
- BAZKIDEEN ADINA: 19 urtetik 90era bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO:
 - EGUNA: Asteartea
 - ORDUA: 18:00-20:00
 - TOKIA: Lokalean: Bolua, 49
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Pintura eta beste arte plastikoen ekintzak burutu.
 - Erakusketen, lehiaketen eta beste ekintzen informazioa jaso eta bazkideei jakinaraztea.
 - Haurrentzat ikastaroak antolatu: urte osoan eta udan.
 - Nagusientzat pintura-ikastaroak.
 - Beste erakundeek antolatutako ekintzetan parte hartu (Aroztegi aretoko erakusketa kolektiboa; eskaparat-lehiaketetan epaimahakide bezala parte hartu).
 - Ikastaro monografikoak antolatu.
 - Bergarako Hirigune Historikoa Koloretan aire libreko museo.
- KONTAKTURAKO: beart.elkarte@gmail.com
<https://www.facebook.com/beart.elkarte/>
<http://beartelkarte.blogspot.com.es/>

1979. urtean sortu zen abesbatza. Sortu zenetik 400 pertsona inguru pasa dira bertatik. Gaur egun 22 urtetik 65 urtera bitarteko 25 kidek osatzen dute talde koral hau. Euskal Herrian ezezik Espainian ere eman dituzte kontzertuak, eta hainbat antzerki-lan eta musikaletan ere hartu dute parte.

- BAZKIDE-KOPURUA: 25
- BAZKIDEEN ADINA: 22 urtetik 65era bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO:
 - EGUNA: Astelehena eta asteazkena.
 - ORDUA: 21:00-22:30.
 - TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpirualde).
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Gabonetako kontzertua, Inauterietako kontzertua, bestelako kontzertuak...
 - Hainbat antzerki-lan eta musikaletan hartu du parte.
 - Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko fundatzailea ere bada.
- KONTAKTUA: arizetaabesbatza@gmail.com



BERGARAKO BUZTINTZALE ZERAMIKA ESKOLA

40 urte baino gehiago daramate zeramika lantzen, baina 2006an eratu zute elkarte. Hainbat zeramika modalitate lantzen dituzte: tornua, murla, eskultura... Tarteka hastapen ikastaroak ematen dira; horrela, herriarrek zeramikako mundua ezagutzeko aukera izango dute.

- BAZKIDE-KOPURUA: 16
- BAZKIDEEN ADINA: 30 urtetik 70ra bitartekoak
- TALDEA BILTZEKO TOKIA: Zabalotegi 11, behea (lokala)
- EGITEN DUTEN LANA:
 - Erakusketa Aroztegi aretoan.
 - Bergarako ferietan lanak erakutsi eta tailerrak.
 - Hastapen ikastaroak.
- KONTAKTUA: buztintzaleak@gmail.com

